Ikastolen emendakin, ohar, galderak –
Batzorde eragilearen erantzunak
mendements, remarques, questions des ikastola –
Réponses du Conseil Exécutif

2023-24 AURREKONTUA – BUDGET PREVISIONNEL 2023-24

Langilego karguak / Charges de personnel

GARAZI/AZKARATE

Jaz egindako aipamenaren ildotik, aurten ere ber kezka azpimarratu nahi ginuke. Ikastoletan, langileetaz arduratzeko laguntza ekarriko lukeen aditu batendako postu bat sortzeko beharra ikusten dugu. Honek galdera juridikoei erantzuten ahalko lieke adibidez. Ikastoletan laguntza beharra senditzen da, eta Seaskak horri erantzun behar lukeela pentsatzen dugu.

Conformément à la remarque que nous avions faite l'année dernière, nous voudrions souligner la même inquiétude cette année également. Dans les ikastola, nous voyons la nécessité de créer un poste qui répondrait au besoin d'accompagnement pour le volet social. Une personne pourrait répondre à des questions juridiques par exemple. Les écoles ont besoin d'aide et nous pensons que Seaska devrait répondre à cette demande.

Batzorde Eragilearen erantzuna/ Réponse du Conseil Exécutif

Aldaketa handien urtea dugu kondularitzan. Seaskan, Mado agorrilan, eta Maialen abenduan erretretara doaz. Sophiek erran berri digu heldu den sartzean Senpereko kolegiora doala. Lehenik balia gaitezen lerro xume hauetaz, egin duten lan ikaragarria eskertu eta txalotzeko.
Sozial arloko aholkulari juridikoa geroz eta gehiago heldu den gaia da, eta orain arte Seaskak ez zuen lan hori bere gain hartzen ahal. Adibidez, ikastola batek langile batekin arazoa duenean, eta kanporatzeko urratsa egin nahi duenean, abokatu baten beharra du eta Seaskak ez du abokaturik bere langileetan. Abokatu edo aditu baten postua sortu gabe, gabinete batekin aholkularitza juridikoa kontratatzea izan daiteke aterabidea, Ikastolen halako eskaera bereziak gabinete horrengana bideratzeko.

C'est l'année des grands changements au service comptabilité. Mado prendra sa retraite en août et Maialen en décembre. Sophie vient de nous dire qu'à la rentrée prochaine elle ira au collège de Senpere. Profitons d'abord de ces quelques lignes pour les remercier et les applaudir pour leur travail titanesque.
Le conseil juridique en matière sociale est un sujet de plus en plus abordé et jusqu'à présent Seaska ne pouvait assumer ce travail. Par exemple, lorsqu'une ikastola a un problème avec un.e salarié.e et qu'elle veut le.a licencier elle a besoin d'un avocat et Seaska n'a pas d'avocat dans son personnel. Sans créer un poste d'avocat ou d'expert, la solution pourrait consister à faire un contrat de services auprès d'un cabinet afin d'orienter ce type de demandes spécifiques des ikastola vers ce cabinet.

LEKORNE :

Zer erran nahi du lehen parteko "baina iaz izan ziren hitzarmenezko soldata igoerak"? Nori dagozkie?

Qu'est-ce que cela signifie dans la première partie "les augmentations de salaire qui ont eu lieu l'année dernière suivant la convention" ? Qui est concerné ?

Seaskako bulegoetako langileetaz ari gira. Seaskako lan hitzarmena IDCC 2691 Hitzarmen kolektiboa "Enseignement privé indépendant » da.
Il s'agit des salarié.e.s de la fédération. La convention collective de Seaska est la convention collective IDCC 2691 « Enseignement privé indépendant ».

Hezkuntza zuzendari bat badela idatzia da, baina aipatu zen zuzendari orde bat ere izatea, langile bat ere izan zen (Idoia eta Ana), zer bilakatu dira ?

Il est écrit qu'il y a un directeur éducatif, mais il avait été dit qu'il y avait aussi un sous-directeur(trice), il y avait également eu une autre salariée (Idoia et Ana), Que sont-elles devenues ?

Idoiaren kontratua apirilean bururatu zen. Maiatzean barne deialdi bat egin da irakasleen artean, eta ondoko egunetan ukanen dugu emaitzaren berri, arduradun berria izendatzeko. Anak gurekin segitzen du, aholkularitzan bereziki hezkuntza proiektuaren eguneratze lanetan.
Le contrat d'Idoia s'est terminé en avril. En mai, un appel à candidature interne a été lancé auprès des enseignant.e.s, et dans les jours suivants nous connaîtrons le résultat, pour désigner un.e nouveau.elle responsable. Ana continue à travailler avec nous, notamment pour le travail de conseil pour la mise à jour du projet éducatif.

Ordezkoen bide fresak / Frais de déplacement des enseignant.e.s suppléant.e.s

AZKARATE eta GARAZI :

Aurrekonduan ordezkoen bide fresak desagertu dira. Egoera hori kezkagarria zaigu, batez ere barnekaldeko ikastoletan ordezkoak atxemaiteko zailtasunak ekartzen ahal lituzkelako.

La ligne des frais de déplacement des suppléant.e.s a disparu sur le budget. Cette situation nous inquiète, notamment parce qu'elle pourrait entraîner des difficultés à recruter des suppléant.e.s pour les ikastola de l'intérieur.

Urte osoko lanpostua hartzen duten ordezkoei bide gastuak ez ordaintzea erabaki zen iaz, eta ez dugu arazorik izan lanpostuen betetzeko. Aldiz, Seaskan bost urte baino gehiago daramaten Hegoaldeko ordezkoentzat (CRPEko konkurtsoa gainditu ezin dutenak frantses maila handia galdegina baita) beka bat lortu dugu Ikastolen Elkartearen bidez. Gisa berean, urtean zehar ordezkapenak egin behar dituzten ordezkoendako, bide gastuak atxiki ditugu.

L'année dernière, il a été décidé de ne plus prendre en charge les frais de déplacement des suppléant.e.s ayant un poste pour toute l'année scolaire et nous n'avons eu aucun problème à pourvoir les postes. En revanche, pour les suppléant.e.s d'Hegoalde qui sont à Seaska depuis plus de cinq ans (ceux.celles qui ne sont pas en mesure de passer le concours du CRPE car le niveau de français est trop élevé), nous avons obtenu une bourse par l'intermédiaire d'Ikastolen Elkartea. De même, les frais de déplacements sont pris en charge par Seaska pour les suppléant.e.s qui sont embauché.e.s. en cours d'année.

ORTZAIZE :

Erakasle ordezkariei bide-gastuak ez zirela gehiago ordainduak izanen edo bakarrik Donibane Lohitzune arte, ulertu ginuen. Alta Irratian Donostiatik Donapaleurako bide-gastuak ordainduak dituen ordezkari bat entzuna izan da. Zertan da bide gastuen ordaintzeko gaia?

Nous avions compris que les frais de déplacement des suppléant.e.s ne seraient plus payés ou seulement jusqu'à Saint-Jean-de-Luz. Pourtant il y a été entendu à la radio un enseignant dont les frais de déplacement de Donosti à Saint Palais sont pris en compte. Qu'en est-il de ce sujet ?

Gaineko erantzun bera.
Voir réponse ci-dessus.